


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %15,0 murriztu zen 2009ko hirugarren hiruhilekoan

Etxegintza %16,9 eta Obra Zibila %11,6 jaitsi ziren

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2009ko hirugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneoan eta urte artean %15,0 murriztu zen, termino nominaletan, Euskal AEko eraikuntzako jarduera.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2009ko hirugarren hiruhilekoan eraikuntzaren sektorea %3,2 murriztu zen, 2009ko bigarrenaren aldean.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%)



Iturria: Eustat

2009ko hirugarren hiruhilekoan, Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etxegintza azpisektoreari - urte arteko %16,9ko jaitsiera izan baitzuen-, eta Obra zibilekoari, -%11,6koa- zor izan zitzaien.

Hiruhileko arteko terminoetan, 2009ko hirugarren hiruhilekoko sektorearen jarduera urte bereko bigarrenarekin alderatuta, bi sektoreek bilakaera negatiboak izan dituzte, Obra Zibilak %-2,6 eta Etxegintzaren azpisektoreak %-3,6.

Eraikuntzako enplegua %1,6 jaitsi zen 2009ko bigarren hiruhilekoaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren koiunturaren indizea 2009ko 3. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	09 3.hir / 08 3.hir	At/At-1 (1)	09 3.hir / 09 2.hir	09 2.hir / 09 1.hir
Produkzioaren indizea	-15,0	-12,0	-3,2	-4,1
Eraikuntza	-16,9	-15,1	-3,6	-3,3
Obra zibila	-11,6	-6,0	-2,6	-5,6
Landunen indizeak	-	-	-1,6	-1,4

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp